

Informatikariak

Deskribapena

Arloa: Informatika / Internet

Eskaintzaren deskribapena:

Gurekin lan egiteko eta taldera gehitzeko jende bila ari gara. Informatika lanak egiteko bi pertsonen bila, alegia.

Teknologia eta proiektu interesgarriekin lan egiten dugula uste dugu. Teknologia libreekin lan egin eta puntan egoten saiatzen gara. Lantalde honetan ikusten baduzu zure burua, idatzi lasai.

Printzipioz, bi pertsona kontratatzekotan gabilta:

Web garatzailea:

- Ahal dela, Python lengoaia eta Django framework-aren ezagutza.
- Beste lengoaiak baloratuko dira (java, php, ...).
- MySQL, PostgreSQL, ...

Aplikazio mugikorren garatzailea:

- Aplikazio natiboak (android, ios) zein hibridoak.
- AngularJS, HTML5, CSS, ...

Baldintzak

Euskara eta ingelesa maila altua eskatzen dugu eta baloratzeko artean, antzeko lanetan esperientzia (ezinbestekoa ez bada ere), lan taldean lan egiteko gaitasuna, ekimena, komunikaziorako gaitasuna, software librearen ezagutza, ...

Uste dugu giro oneko enpresa garela. Lantokia Eibarren dugu. Euskara, gaztelania eta ingelesa lan egiteko komeni badira ere, laneko hizkuntza euskara da eguneroko jardunean.

Laburpena

Lekua: Eibar Gipuzkoa

Enpresa: Lansarean